

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko martxoaren 23tik 29rako astea.**

## **I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/03/29**

- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den aldi baterako laneko enpresen Estatuko VI. Hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordioen Akta. **2019-4622 xedapena - 4 or.**
- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Hondakinak eta bigarren mailako lehengaiak errekupeatzeko eta birziklatzeko hitzarmen kolektiboa. **2019-4630 xedapena - 29 or.**
- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Notarioen eta horien enplegatuen Estatuko hitzarmen kolektiboaren 2019rako soldaten berrikuspena. **2019-4639 xedapena - 4 or.**
- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Menpekotasuna duten pertsonen arreta zerbitzuen eta autonomia pertsonala garatzea sustatzen duten langileen Estatuko VII. hitzarmen kolektiboko berrikuspena eta 2019rako ordainsarien taulak. **2019-4641 xedapena - 4 or.**
- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren Higiezin kudeaketarako eta bitartekaritzarako enpresen Estatuko hitzarmen kolektiboko 2018ko behin betiko ordainsarien taulak. **2019-4642 xedapena - 3 or.**
- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren Janari pasten industrientzako Estatuko hitzarmen kolektiboko 2018ko behin betiko ordainsarien eta 2019ko behin-behineko ordainsarien taulak. **2019-4643 xedapena - 3 or.**
- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren Espainiako dantzaleku, dantza-areto eta diskoteketako langileen Estatuko hitzarmen kolektiboko 2019ko ordainsarien taulak. **2019-4644 xedapena - 4 or.**

- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren Ostalaritzaren sektoreko Estatu esparruko V. Lan akordioa aldatzeko eta luzatzeko akordioak. **2019-4645 xedapena - 11 or.**

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2019/03/23**

- **SUSTAPEN MINISTERIOA. - Itsas nabigazioa.** 131/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, ontziak kontsignatzeko betebeharra garatzen duena. **2019-4248 xedapena - 5 or.**
- **PRESIDENTETZA, GORTEEKIKO HARREMANAK ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. - Antolakuntza.** - PCI/327/2019 Agindua, martxoaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen baita PRE/3581/2007 Agindua, abenduaren 10ekoa, Zerga Administrazioari Espainiako Agentziaren sailak ezartzen dituen eta horren funtzioak eta eskumenak esleitzen dituen. **2019-4250 xedapena - 6 or.**

**2019/03/25**

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Antolakuntza.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 20koa, Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzarena, jardura eteteagatiko prestazioen alorreko aurretiko erreklamazioak ebazteko batzorde paritarioaren sorrera, osaera, antolakuntza eta funtzionamendua zehazten duena. **2019-4293 xedapena - 5 or.**

**2019/03/26**

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Administrazio prozedurak.** -
  - **Kudeaketa informatizatua.** - TMS/331/2019 Agindua, martxoaren 20koa, zeinaren bidez ezartzen diren Ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen nazioarteko mugikortasunaren atalean ezarritako bizileku baimenei lotutako espedienteetako dokumentuak elektronikoki aurkezteko gaikuntza hitzarmenak sinatzeko betebeharrak eta baldintzak. **2019-4355 xedapena - 4 or.**

- **Europar Batasuna.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 25ekoa, Migrazioen Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2019ko martxoaren 22ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez onesten diren, baldin eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasunaren Tratatuen 50. artikuluan ezarritako akordiorik gabe ateraz gero, zer prozedura jarraitu behar den Espainian bizilekua duten Erresuma Batuko biztanleen eta beren familiako kideen dokumentaziorako ateratzeko epearen aurretik, bai eta Erresuma Batuko dokumentaziorako ere, mugako langile izaera badute ateratzeko epearen aurretik. **2019-4356 xedapena - 13 or.**
- **PRESIDENTETZA, GORTEEKIKO HARREMANAK ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. - Substantzia kimikoak. Kontrola.** - 78/2019 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, zeinaren bidez onesten den Arma kimikoak ekoizteko desbidera daitezkeen substantzia kimikoen kontrol neurriei buruzko abenduaren 20ko 49/1999 Legea garatzeko Araudia. **2019-4357 xedapena - 59 or.**

## 2019/03/28

- **OGASUN MINISTERIOA. - Zerga prozedurak.** - HAC/350/2019 Agindua, martxoaren 5ekoa, zeinaren bidez aldatzen den EHA/1658/2009 Agindua, ekainaren 12koa, zeinaren bidez ezartzen diren Zerga Administrazioaren Espainiako Agentziak kudea ditzan esleitutako zenbait zor ordaintzeko helbideratzerako prozedura eta baldintzak. **2019-4493 xedapena - 11 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA. - Airearen kalitatea.** - TEC/351/2019 Agindua, martxoaren 18koa, Airearen kalitatearen indize nazionala onesten duena. **2019-4494 xedapena - 5 or.**

## E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

## 2019/03/25

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** - 42/2019 DEKRETUA, martxoaren 20koa, zeinaren bidez onartzen baita Ilustre Colegio de Abogados de Álava-ren izena aldatzea eta, horren ordez, Ilustre Colegio de la Abogacía Alavesa - Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsua jartzea. **1513 xedapena - 1 or.**

**2019/03/26**

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

- 1/2019 FORU ARAUA, otsailaren 11koa, sozietateen gaineko zergan kultura sustatzeko pizgarriak aldatzen dituen. 1530 xedapena - 6 or.
- 2/2019 FORU ARAUA, otsailaren 11koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituen. 15312 xedapena - 12 or.
- 3/2019 FORU ARAUA, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen. 1532 xedapena - 40 or.

**A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**2019/03/29**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA**

- Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2019 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa. Onespena ematea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren arautegiaren hainbat aldaketari. 930 xedapena - 4 or.
- Foru Gobernu Kontseiluaren 14/2019 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa. Onespena ematea autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioei, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako. 936 xedapena - 836 or.

**B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**28/03/2019**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Oker-zuzenketa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 28ko 2139/2018 Foru Aginduarena. Foru agindu horren bidez, onartzen dira zerga hauek kudeatzeko aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. **5 or.**

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2019/03/25**

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena. **1805 xedapena - 164 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 161/2019 Foru Agindua, martxoaren 13koa, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izena duen 586 eredu aldutzen duena. **1691 xedapena - 7 or.**

**2019/03/27**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 177/2019 Foru Agindua, martxoaren 22koa, 2018ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituen. **1868 xedapena - 115 or.**

**2019/03/28**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 165/2019 Foru Agindua, martxoaren 18koa, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen duena. **1775 xedapena - 8 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 178/2019 Foru Agindua, martxoaren 25koa, 2018ko Errenta eta Ondarea aitortzeko Kanpainako zerbitzuen karta onartzen duena. **1890 xedapena - 10 or.**

**2019/03/29**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

- 5/2019 Foru Dekretua, mar txo aren 20koa, Gipuz - koako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskari tza ren Erregelamendua alda tzen duena. **1830 xedapena – 13 or.**
- 6/2019 Foru Dekretua, mar txo aren 20koa, zerga urraketen eta zigorren araubidea gara tze ko Erregelamendua alda tzen duena. **1831 xedapena – 8 or.**

**E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):** **Europar Batasunaren Aldizkari Ofi**  
**Ziala**

**2019/03/27**

- **ERREGELAMENDUAK.** - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/500 (EB) Erregelamendua, 2019ko martxoaren 25ekoa, Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzearen ondorioz gizarte segurantzaren koordinatzeko kontingentzia neurriak ezartzen dituenak. **4 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO